


**VILLA INTZENEA**  
D MAILA

**ITSASARGI PASEALEKUA 26**



**Luis Elizalde, 1913, M. Antonio Setien, 1950**

#### **Deskribapena**

1950eko handitzeak ezkutatu egiten du Elizalderen jatorrizko proiektua. Gaur egun profil mailakatua ikusten dugu, zurezko teilatu-hegal horizontalen segida batez, eta beheko solairuko begiratokia eta azpiko mailako arkuak fatxadetako pieza garrantzitsuenak dira egun. Eraikinaren kokapena pribilegiozkoa da, eraikinak hegan egiten duen partzela berdinduan; horrela, galeria bat lortzen du mendiko desnibelaren gainean. Partzela mendiaren mugan dago, Haizearen orraziaren gainean, eta murrue geometria topografia horixe egokitzen zaio. Etxearen profila, plataforma gainekoa, beheko, lehen eta bigarren solairukoa da, eta beheagoko maila nagusi bat ere badu, harrizko basamentuarekin eta arkuekin, plataforman egin hondeatze lanaz gain.

#### **D mailako babes erregimen espezifiko**

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: ez.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harrizko elementuak, teilatu-hegalak eta estalkia.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.